


# BERRIGARA

39. zenbakia

Jardun elkartea, Bergara


1991, urriak 31



**Intsumisoak  
gero eta gehiago dira**



**Bertso  
txapelketa  
Antzuolan**



**Domusantu  
eguna:  
enterradoreekin**



**Amaia  
Arantzabal  
etxean**

BANCO



**Guipuzcoano**

LOIOLA'91 BANKU OFIZIALA







Barrenkale, 3. BERGARA • telf.: 90-765919

**Pintxoak, eguneroko menua eta karta bereziak ditugu  
Betiko eta oraingo sukaldaritza**

**ARGAZKI**

**18 urtean  
zure zerbitzuan**

**Barrenkale 16 Tfnoa: 76 20 66**



## **GALDE DEBALDE**

**Talde Mistoa**

**Aurreko GALDE DEBALDEko erantzun zuzena hau zen: Kurutzeberri mendiaren izena eta altuerari dagokionez bi erantzun eman ditugu ontzat: 1133 m. (Gailurrean jartzen duena) eta 1146 (Deba Garaiko mankomunitatearen mapan agertzen dena).  
Talde Mistoa delako honek idabazi du  
**ASKASIBAR jatetxeko SARIA.****

**ZORIONAK irabazleei!!**

**Eta besteok animatu, eta erantzuna eman aste honetako galderarai!**

## **SANTOS**

### **IRRATI - TB**

**Elektragailuak  
Sukaldeko Altzariak  
Argiztapena  
Antena instalazioak  
Elektragailuen konponketa**

**Mahasterreka 2, Tfnoa: 76 26 10 BERGARA**



## **JANTZIDENDA**

**Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 57**



# BERRIGARA

## Argitaratzailea:

Jardun Elkarte  
Errotalde Jauregia, 20.570  
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 760397

Laguntzailea: Bergarako  
Udala

## Zuzendaria:

Miguel Angel Elkoberezibar

## Erredakzioa eta maketazioa:

Eneko Azkarate, Eduardo  
Mendibil

## Publizitatea eta harpidetzak:

Aitor Aranzabal, Ifaki  
Arietaleaniz eta Edurne Arenaza  
Tfnoa: 760397

**Erredakzio-kontseilua:** Jose  
Angel Mikeo, Estepan Plazaola  
eta Juan Martin Elexpuru

**Kolaboratzaileak:** J. Oregi, A.  
Urzelai, Maripe Laskurain, Ainhoa  
Lete, Jon A. Bengoa, Mikel  
Lizarralde, Monika Belastegi,  
Mikel Elkoberezibar, Josune  
Iñarra, Xabier Aranburu, Aitziber  
Aretxaga, I. Sorondo eta Ainhoa  
Bikuña

## Argazki laborategia:

A. Gallastegi, B. Cantero, M.  
Leturia, K. Retolaza, J.A. Eguren,  
J.I. Millan, J. Aguayo, J. Tabares,  
Txomin Retolaza, Kifu eta Pol-  
Pol Mendizale Taldea.

## Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

## Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa:** Txantxangorri  
Taldea

**Copyright:**  
BERRIGARA

**Tirada:** 2.500 ale

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

**BERRIGARA** ez du bere gain  
hartzeko aldizkarian adierazitako  
esanen eta eritzien erantzunkin-  
zunik.



**UFO eta Canvey Island Allstars** taldeak Txibiston izango ditugu larunbatean, azaroak 2. Canvey Islandekoek UFO historikoei telonero lanak egingo dizkie; 1.967an sortutako taldea, UFO 74an argitaratutako *Phenomenon* diskarekin ezagutzera eman zen mundu osoan. Jarraian klasiko bihurtu diren hainbat diska kaleratu zituzten eta 1.985. urtetik mantentzen duten isiltasuna apurtuko dute ingelesek honako kontzertuan. Oraindik lehen baino indartsuago datozela diote bere jarraitzaileek... Rock gogorra beraz, larunbatean, gaueko 11etan, Txibiston.

## 1 OSTIRALA

• Azaro-abendu musika:  
-Noruegako *Vinderen-Barnekor* Haur Abesbatza, Seminarioko Eleizan 20.00etan.

## 2 LARUNBATA

• Saskibaloia:  
- Bergara - Loiola (jubenil gizonetakoak), 16.00etan.  
- Bergara - Iraurgi (kade-te emakumeetakoak), 16.  
• Erakusketa  
- Numismatika erakusketa Kultur Etxean.

(12.00 etatik 14.00etara eta 18.00etatik 20.00etara.)

## 27 IGANDEA

• Saskibaloia:  
- Bergara-Donosti (jubenil emakumeetako), 10.30etan.  
• Eskubaloia:  
- Bergara-Jauja (jubenil gizonetakoak) 12.15etan.  
• Futbola:  
-Bergara-Urki Agorrosin 15.45etan.  
• Erakusketa:  
- Nahikarin Dani Laskurainen lanak ikusteko aukera.

## FARMAZIAK



- 1 Mozos
- 2 Camacho
- 3 Camacho
- 4 Puy
- 5 Guallar
- 6 Estella
- 7 Mozos

## ZINEA



*Regreso al Lago Azul*

- OSTEGUNA: 10,30etan
- OSTIRALA: 10,30etan

## FX2

- LARUNBATA: 5, 7.30
- IGANDEA: 5, 7.30 eta 10.15
- ASTELEHENA: 7.30

*Ballando con lobos*

- LARUNBATA: 10,30

## OGIA



- OSTIRALA: Bolintxo
- IGANDEA: Mizpildi

## BRIKOLAIA AUTOMOZIOA

Turismoak,  
kamlolak, etab.

Bolu, Tfnoa: 76 44 04 BERGARA

## anezka

Udazkenerako oihalak  
eta lenzeria

Espolola 8, Tfnoa: 76 59 25



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41



# Beheko Taberna

Menestra eta konejua dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

## MAKAILO

Makallau kazuelak gertatzen ditugu

Ibargaral 15



## IZADI

Santiveri

PILI GISASOLA

Osasun eta Dietetikan espezializatutako zentrua

Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

## Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artakale 1, 1. C Tfnoa: 76 01 65

### Kubari buruzko erreportaia

"Europako Estatu Sozialistek, demokraziarako bidea hartu badute ere, Fidel Castrok argi eta garbi utzi du azken egunotan Kuban ez dela inoiz kapitalismoa sartuko". Holako "perla" batekin irekitzea erreportaia bat nahiko gogorra da. Noiztik kapitalismoa eta demokrazia gauza berdinak dira, ala Hego Afrikak sistema demokratiko bat dauka?

Bigarren "perla" ez da makalagoa "...denak bizi ziren ondo Kuban (Castro baino lehen)". Hau bezalako erantzuna jaso ezker, edozeinek galdetuko lioke bere buruari zelan den posible paraiso hartan iraultza bat aurrera eramatea. Tontuak al dira kubatarrak?

Hirugarren "perla" sarritan entzuten dugu kalean: "benetan gaizki ikusten dut egoera, unibertsitateaz eta ospitalaz gain ez daukate ezer". Hirugarren munduko nazio bati buruz hitzeginen ari gara. Ezagutzen al dituzue hirugarren munduan estatu asko holako oportunitadeekin jende guztiarentzako?. Horretaz aparte, jakin behar duzue Hego Amerikan badaudela gauzak au-



keratzeko baina bakarrik dirua baldin badaukate, %60 baino gehiago miseria larrian daude, baina noski sistema demokratiko batean.

"...gauza onak pikutara botatzea pena bat izango litzateke". Baina Kubak gauza onik ba al dauka momentu honetan?. Bat ere ez dut irakurri erreportaia osoan.

Ez dut nahi bukatu eskutitz hau azpimarratu barik, J.M. Velez de Mendizabalek idatzitako kolumna, erreportai osoko zati onena delako, objetiboa eta ondo idatzia.


Ziur nago Kubako sistemak akats haundiak dauzkala hasieratik, ez orain bakarrik, eta etorkizun gutxi seguraski, baina zuek emandako imajiña benetan negargarria izan da.

Norbaitek artikulo horretan sartu du hanka leporaino nere ustez, ezin da holako tema bati buruz idatzi holako "perla" k bidean utziaz.

Tx.

**OHARRA:** Joan den asteko "Hau dok barreguria" saileko txisteak Roman Garmendiak idatziak ziren eta ez J.M. Elexpuruk, jarri genuen bezala.

Tiiira ba!



Josu Okina




### ▣ Krabelin

Osintxuko *Krabelin Ludoteka* martxan jarri da berriz ere, aldaketa batzu izan direla ordutegian; orain 5 t'erdietatik 7etara ludoteka izango duzue eta 7etatik 8 t'erdietara biblioteca bezala funtzionatuko du. Larunbatetan ere zabalik izango da 4retatik 7etara. Eta aldi berean jakin erazi nahi dute etxean dituzuen traste zahar, jostailu, jantziak eta horrelakoak jasotzeko prest daudela, bertan aprobetxatzeko asmotan.

### ▣ Erakusketa

*Bergarako Sellu eta Diru Bildumazaleen Elkarteak* antolatutako, azaroaren 1etik 10era bitartean *XX. Diru Erakusketa* ikusteko aukera izango duzue Kultur Etxean.



## Hasiera bikaina

Jende dexente bildu zen joan den igandean San Pedroko Elizan aurtengo *Azaro-Abendu Musikalari* hasiera eman zion kontzertuan. *Jesus Guridi Musika Eskolako Talde Instrumentalak* eta *Gasteizko Gazteen Abesbatzak* kontzertu ederra eskeini zuten eta jendea ere gustora geratu zen arabarrek eskeinitako kontzertuarekin. Lehen zatian hari

orkestra eta talde instrumentalak aritu ziren, jarraian talde instrumentalak eta abesbatzak zenbait pieza elkarrekin jo zituztelarik.

Asteazkenean ere Finlandiako *Dominante Abesbatza* izan genuen eta ostiralean, azaroak 1, Noruegako *Vinderen-Barnekor* haur abesbatzaren txanda izango da, arratsaldeko 8etan Seminarioko Elizan.

### ▣ Dantzan

*Xamatx Dantza Taldeak*, helduei dantzan ikasteko aukera eman nahian, *Fandango eta Arin Arin ikastaroa* antolatu du 16 urtetik gorakoentzat. Ikastaro hau azaroaren 9tik abenduaren 7ra bitarteko larunbatetan eskeinitako da goizeko 11etatik 12etara Aranzadi Ikastolako dantza gelan. Izena emateko epea azaroaren 7ra arte zabalik izango duzue Ariznoa, Pol-Pol eta Kortazar tabernetan.

### ▣ Zozketa

*Aranzadi Ikastolako* 8. mailako ikasleek *Ikasketa Bidaiarako* antolatutako zozketan 3.480 zenbakia izan da saritua. Zenbaki horren jabeak bideo bat eta telebista bat jasoko ditu.

## Eli Galdos bisitari

*Eli Galdos* Gipuzkoako Diputatu Nagusia gure herrian izan genuen ostegunean. Arratsaldean, prentsaurreko bat eskeini zuen Udaletxeko Pleno Aretoan *Victoriano Gallastegi* eta *Anjel Maria Iturbe* Oñatiko alkatearekin batera. Hirurak bat etorri ziren Diputazio eta Udaletxeen arteko erlazioak sendotu beharra dagoela adieraztean. Victoriano, gure herriak dituen beharren zerrenda eman zion Diputatu Nagusiari eta, bai Eli Galdosek eta bai Bergarako alkateak Deba Garaiko autobiarenean eta Udaletxea berriztatzeke proiektuen lehentasuna azpimarratu zuten.



**MINER** Ardo onak,  
**ardoa** jakina

Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA

**iRUDI**  
Erlojudenda  
Bitxitegia

San Pedro 11  
Tfnoa: 76 51 65



❑ **Entzuten jakin**  
Jesus Mari Matak eta Juan Gabriel Urriategik Elkarri Entzuteko Arteari buruzko Ikastaroa emango dute Antzuolan azaroaren 6tik urtarrilaren 29ra bitartean. Plaza mugatuak dira eta matrikula 4000 pta. izango da. Informazio gehiago nahi izanez gero, 766269 telefonora dei dezakezue Kontxigatik galdetuz.

❑ **Gidariak**  
Martin Egañak garaipena lortu zuen joan den igandean Alcañizen jokaturako AX Citroen Espainiako Txapelketaren lasterketan; Ion Garagorri 9. sailkatu zen eta Juan Ramon Irizarrek 11. postua lortu zuen. Bestalde, Pablo Irizarrek Produkzioako Espainiako Txapelketan parte hartu zuen eta ezin izan zuen karrera amaitu.



## Euskara gazteena

Jakinmin handia eta komentario ugari sortu dute hainbat udalen artean antolatu den "Euskara gazteena" kanpainako karteak. Kanpaina joan den larunbatean, hilak 26, hasi zen Donostian eman zen prentsaurreko batekin eta herrietan jarraituko du hainbat ekintzarekin. Dagoeneko, joan den astean bost egunetan zehar euskararen erabilera neurtu zen Bergarako kaleetan eta honako hauek izan ziren jasotako datuak edade desberdinetan:

Haurrak (0-14 urte): % 65,2 euskaraz; gazteak (15-24 urte): % 41,9; helduak (25-60): % 29,9 eta zaharrak (65tik gorakoak): % 50,7. Herritar guztiak globalean hartuta, euskararen erabilera % 43koa izan da, 1989an baino % 7 altuagoa. Aipaturako aurreko neurketatik igorarik haundiena gazteek egin dute, ia doblatu egin da bi urtean. Badirudi, beraz, Bergaran kanpainaren lema egia bihurtu nahi dela.

❑ **Fontsi Memoriale**  
Joan den larunbatean ospatutako II. Fontsi Memorialean, Futbitoko 12 orduko Txapelketan, Mongatxurra taldeak 7 eta 6ko emaitzarekin irabazi zion Etxagi taldeari. Horrez gain, trialsin eta eskalada exhibizioak eta Mountain Bike Trabiesa izan genituen eta arratsaldean Korritutako I. Herri Barruko Milla-n Alex Saavedra arrasatearra nagusitu zen.

❑ **Oilagorria**  
Oilagorria Ehiza eta Arrantza Elkarteak, Harane Errekan gertatutako hondamen ekolojikoak salatu zuen Ertzantzako Komisaldegian larunbatean. Oilagorrrakoek aspaldian bertan utzitako amorrainak hilik azaldu dira azken egunotan. Oraindik ez dira hondamen horren arrazoiak argitu.

**TOKI-EDER**  
**Taberna**

Pintxoak eta eguneko bazkariak


Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

**KONDE**  
**PANADEROKUA**



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

**A**



**ARRASATE**

**ELKORO**  
**ANTENAK**

✓ **TB Satellite bidez**

✓ **Telebanaketa**

**Tfnoa: 79 18 86**





## Antzuolan bertsoan

Joan den ostiral gauean jende pilo bat bildu zen Antzuolan *Gipuzkoako Bertsolari Txapelketari* hasiera eman zion jaialdian. Gurasoen Elkarteko Zine Aretoan izandako lehen kanporaketa honetan hamar bertsolarik hartu zuten parte eta bertso saio bikaina eskeini ere.

Azkenean *Jesus Iribar "Olalde"*, *Jose Ramon Elortza* eta *Jose Antonio Sasiain* izan genituen puntuaziorik altuenak lortu zituztenak. Gipuzkoako lehia-

keta bost taldetan banatu da eta Antzuolakoa A taldeko kanporaketa izan genuen. Hurrengoak Uurbilen (Urriak 31, gaueko 10etan), Aretxabaletan (Azaroak 1, goizeko 11etan) eta Hondarribin (Azaroak 3, goizeko 11etan) izango dira. Ondoren, beste zenbait kanporaketa, abendua- ren 22an, Santo Tomas egunean, Donostian ospatuko den finalean parte hartuko duten bertsolariak nortzuk izango diren erabaki arte.

## Txinpartak

✓ *Jose Maria Setien Donostiako Gotzaiak, Eustaquio Uranga ELAko sindikalistak eta Carmelo Urdangarin enpresariak, Juan Pablo II. Aita Santuaren "Centesimus Annus" enziklika aurkezten jardun dute UNEDeko Aretoan astelehenetik asteazkenera.*

✓ *Daniel Laskurain* artista bergararraren zenbait pintura, dibujo eta grabatuak ikusgai dituzue *Nahikari* tabernan.

✓ Gogoratu 15-25 urte bitarteko gazteek *Gazte Txartela* Udaletxean egin dezakezuela arratsaldeko 4retatik 6etara.

✓ *Toledoko Eskola Gregorianoa* etorriko zaigu *Pragako Orkestra Nazionalaren* ordezkari *Azaro Abendu Musikalaren* barne abenduaren 22rako programaturako kontzertura.

✓ *Kilometroak 91ko Salmenta Batzordeak* soberan geratu den materiala prezio interesgarrietan jarriko du salgai datozen hiru larunbatean.

✓ *1991ko Komenio Kolektiboaren* negoziazioaren inguruan sindikatu eta Ikastolen Federakundearen artean diren diferentziak direla medio, *Bergarako Aranzadi eta Mariaren Lagundia* ikastolek bat egin zuten asteazkeneko deitua zegoen greba deialdiarekin. Grebak 1.500 ikasle inguru utzi zituen klaserik gabe gure herrian.

# Siaska

Dena zure  
haurarentzako

Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39

## Etxenagusia

Berezitasunak:

kremazko kafea eta  
paella Valentziako erara

Bidekurutzeta 9, Tfnoa: 76 20 08



### POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

### DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51



# Iriaungo San Andres

## Elosuko ermita

**J**akiterakoan pixka bat harritzen ba gera ere, Elosuko Eleiza hasieran ermita bat izan zen; XVI. garren gizaldiaren erdi aldera egin zuten Parroki. 1.468.ekoa da ezagutzen dugun lehendabiziko datua. Ez, noski, oraingo Eleiza; hau, Parroki izendatu zutenean, hasi bait ziran egiten, eta ahoz aho jaso danez, bere gazteluko herriarekin gañera.

Mezetarako eta eleizkizunetarako urruti zegoela Elosu, eta horrela egin zuten lehengo ermita Parroki berria. Gerroago, arrazoi berdiñak erabili zituzten osintxuarrak eta sanprudentziotarrak berenak parroki egiteko.

Zergatik ez dakit, eta bere berezitasuna badauka, bañan antxiñantxiñatik, plaentxiarrak eta uzarraga-antzuolarrak urtero igotzen ziran Elosuko Eleizara peregrinarien modura.

Gaurko eleizak aldare nagusi ederra dauka, Txurrigeraren estilokoa.

Elosuko eta Pol-Poleko mendiak oso aberatsak dira dolmenetan, eta bere auzoak oso ondo gorde eta jaso ditu antxiñako ohiturak, ipui, mito, kultura, etab.

Lehengo euskal izatearen testigu ona eta lekuko berezia dugu. Esaten dugunaren adierazpen bezela, bijoa Eleizari buruz edo, hobeto esateko, mezari zor zaion errespetoari buruz, ahoz aho ikasotakoa: Juanito txistularia, Elosuko abadea, oso ehiztari trebea omen zen.

Egun batean, meza ematen ari zala, deabrua erbi baten irudian azaldu omen zitzaion bere esku-bitara. Ikusi bezain laister, meza laga, eta bere atzetik abiatu omen zen eskopeta eskuan eta bi txakur berarekin hartuta. Jaungoikoak zigortu egin omen zuen orduan, usteke erbi harrerri betirako atzetik jarraitzera behartuaz.


Neguko gauetan askotan entzutan omen dira ehiztariaren zitzuak eta txakurrak uluak.



*Elosuko eleiza, hasierean ermita zen.*

*XVI. gizaldian egin zuten Parroki.*

*Gaurko eleizak aldare nagusi ederra dauka, Txurrigeraren estilokoa, aldameneko argazkian ikus dezakeguna.*



*Imanol Sorondo*

*Mugica*

Gozotegia

Artetale 3, Tfnoa 76 51 65



76 20 61

*Pepelu*  
Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.  
Tfnoa: 76 43 07



**Luisi eta Benito Bergarako enterradoreekin:**

**"Gero eta jende gehiago dator Kanposantura"**

*Luisi Dominguez eta Benito Dávila dira Bergarako enterradoreak. 11 urte gorpuak hilobiratzen, nahiz eta lehenengoak urte gehiago daramatzen gure herriko kanposantuan, bere aitajunak eta aitak hasitako lana jarraituz.*

*Ostiral honetan Domusantu eguna dela eta, eurongana jo dugu beren lana hobeto ezagutzeko asmoz.*

- Zein da zehatz-zehatz, zuen lana?

- Bergarako kanposantuaz gain, Osintxu, Angiozar, Elosu, Ubera, Elorregi..., Bergarako auzoetako hilerrietako arduradunak gara. Elorregin eta Uberan auzo-koek enterratzen dituzte hildakoak. Gu gorpuak hilobiratu eta kanposantua zaintzeaz arduratzen gara: Belarra moztu, panteoiak eta hilobiak apaindu, ximeldutako lorak kendu..., guzti horiek egiten ditugu.

- Egun guztian lanean, zuentzat ez dago ordutegirik...

- Horrela da, Ezin dezakegu inora alde egin, edozein momentuan hona etortzeko prest egon behar bait dugu. Egun hauetan jo eta ke ari gara eta ostiralean goizeko zazprietatik gaueko zor-

tziak arte egongo gara.

- Edozein ez da gai zuen lana egiteko...

- Bai gure lana berezi xamarra dela esan genezake. Ustekabeak ere izan ditugu noizbait, baina naturaltasunez hartuz gero ez da problemarik izaten.

- Ustekabeak aipatu dituzue...

- Bai, baina urteak daramatzagu hemen eta ohituta gaude. Sarri gertatu izan zaigu gorpuren bat lurpean hamar urte egon ondoren hezurak besterik ez genituela aurkituko pentsatu, ateratzera joan eta enterratu zen moduan aurkitu izana. Euskal Herrian horrelakoak gertatzea normala da, humedade handia bait dauka lurra eta gorpuak ondo konserbatzen dira.

Gorpuak lurperatu



beharrean nitxoetan sartuko bagenitu ez zen horrelakorik gertatuko. Bergarako kanposantuan nitxo gutxi dira eta noizbait berria egiten badute ere, egokiagoa litzateke lurpean enterratzen diren hilobien ordeztan gordetzen diren taktakoak egitea. Orain ez dira horrelakoak eraikitzen.

- Kanposantuaren arazoa, egunen baten konponduko ote da?

- Ez dugu uste inoiz berria egingo denik. Urteak daramatzate egin behar dela esaten baina begira nola gauden. Gainera, ez da beharrezkoa, oraingoa behar den moduan jarrita nahikoa. Europan hilerri gehienak herriaren erdian daude.

- Eta espazio aldetik nola dago herriko kanposantua.

- Orain bertan bi mila

gorpu izango dira. Hogeibat hilobi dauzkagu libre, baina egunen batean ezuste bat gertatuko baltiz, istripuren batetan hogeitamar lagunek bizia galduko balute, ez dakit non lurperatuko genituzkeen.

- Kanposantura jenderik etortzen da?

- Askok. Gero eta gehiago gainera, zahar eta gazte, adin guztietakoak. Badira egunean hiru aldiz datozenak ere.

- Kontaiguzue, bukatzeko, lanean gertatu zaizuen anekdotaren bat.

- Anekdotak piloak. Behin emakume bat kanposantura bisita egitera etorri zen. Hilobi baten aurrean zegoela lurra biguna egon eta hanka orkatilaraino sartu zuen. Haren sustua! Ahal zuen moduan irten eta antxintxikan ihes egin zuen, zapata bertan utziz.

**ANTIA** HARATEGIA  
URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategl, Tfnoa: 76 15 09


**EUSKALDUNA**  
**Funeraria**

Eurofuneraria taldea

**Egun osoz zuen zerbitzura**

Amillaga 39, BERGARA





## Intsumisioa goraka

**Bost intsumiso bergarar entregatu dira**

*Gero eta gehiago dira soldaduskari uko egiten diotenak: modu baten edo bestean, bizitzako urte oso bat militarren artean pasatzeko prest ez dauden gazteak.*

*Datorren urtean soldaduskara joan beharko duten 200.000 gazteren destinoa, igandean, hilak 3, zozketatuko da. Hori dela eta, beste bost intsumiso bergararrek euren burua aurkeztu dute Gipuzkoako Gobernu Militarraren aurrean.*

Fran Iturbe, Joseba Balzategi, Alex Larrañaga, Josu Aramendi eta Jesus Mari Kalboetxeaga bergararrak soldaduzkari eta Ordezko Prestakuntza Sozialari (P.S.S delako) uko egitean Intsumiso bihurtuko dira.

Hauekin, dagoeneko 14 bergarar dira euren burua intsumisotzat jotzenak. Bergarako beste gazte batek, Karlos Lasak hain zuzen ere, legeak objetore onartu badu ere, Ordezko Prestakuntza Soziala ez egitea erabaki

du, beste bi bergararrek aurrez egin zuten bezala, soldaduskaren ordezko zerbitzuaren aurrean ere intsumisioa bihurtuz.

Aipatutako bost bergararrek asteazkenean, hilak 30, Gipuzkoako Gobernu Militarraren

aurrean beren intsumisio kondizioa aurkeztu zuten. B.O.T.A. (Gipuzkoako Kakitzat koordinadorearen barruan dagoen Bergarako Objeto Talde Antimilitista) taldekoek adierazi zuten bezala, "asteazkeneko aurkezpenean Espainiako Parlamentuan eztabaidatzen ari den Soldaduskaren Erreforma Legea kritikatu dugu. Aipatu legea, sortu aurretik zahar geratu da eta bere helburu nagusia intsumisioaren mugimenduaren aurka jotzea da. Lege berri honekin soldadutzaren itxura garbitu besterik ez da egiten, Ejerzitoaren ezaugarri izan diren ideia atzerakoiak indarrean jarraituko bait dute".

Bergarako Objeto Talde Antimilitaristakoen eritziz, "Ordezko Prestakuntza Sozialaren helburu nagusia soldaduskak indarrean jarraitu dezala da, horregaitik gure kontrako jarrera".

Objeto kopurua Ordezko Zerbitzuan lan egiteko postuak baino altuagoa dela adierazi zuten antimilitaristek

### Autokulpatuak

B.O.T.A.k, beste batzuetan bezala, oraingoan ere, gizarteko sektore baten laguntza izango du. Aurrekoan ikastetxe ertainetako irakasleak izan ziren beren burua intsumisotzat aitortu zutenak, eta oraingoan

**ASAGABASTER**

**JANTZIDENDA**

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Garibal 9, T fnoa: 79 89 97



hainbat tabernari intsumiso autokulpatuko dira. Hogeizango dira guztira, intsumiso bakoitzeko lau.

**Euskal Herria buruan**

Hego Euskal Herria da Estatu osoan intsumiso gehien dagoen Lurraldea. 1.990eko datuen arabera 271 intsumiso dira Hego Euskal Herrian. Beste 104 gazte Ordezko Prestakuntza Sozialari ere uko egin diotena, eta 4.135 da objektoreen kopurua.



Beste Lurralde batzuekin konparatuz: Madrilen, esaterako, 41 intsumiso zenbatu ziren iaz, 46 Ordezko Prestakuntza Sozialari uko egindakoak eta objektoreak, berriz, 5.049. Kataluñan, 59 intsumiso, 41 Ordezko Prestakuntza Sozialari intsumiso eta 3.662 objektore.

Batazbestekoak kontutan hartzen baditugu, Hego Euskal Herriak Estatu osoak baino objektore

*Joan den astelehenean, Bergarako Objektore Talde Antimilitaristako kideek, intsumisioari buruzko gorabeherak azaldu zituzten prentsaurrekoan*



eta intsumiso portzentaia altuagoa du. Soldaduskara deitutako gazteak kontutan hartuz, hauek dira datuak: objektoreei dagokionez % 28,64 Hego Euskal Herrian eta %11,64 Estatu osoan, intsumisoak, berriz % 1,93 Hego Euskal Herrian eta 0,22 Estatu osoan.

Hego Euskal Herriaren atzetik Kataluñan, Madril eta Andaluzia agertzen zaizkigu intsumiso kopuruari dagokionean.

**Protesta ekintzak**

Donostian aurkeztutako intsumisoei lagundu nahian, Bergarako Objektore Talde Antimilitaristak hainbat ekintza egin du ostegunean soldaduskaren eta Erreforma Lege berriaren aurka protestatzeko: ikastetxetan borroka eguna izan da eta 30 militar kartila inguru erre dira herriko plazan.

**Zein den zein**

**Objetorea:**

*Honela izendatzen da soldaduskara joan nahi ez eta Kontzientzia Eragozpen Legeak ezartzen duen Ordezko Zerbitzu Soziala egiteko prest dagoena. Soldaduskan betetzen diren 12 hilabeteen ordez, hainbat erakundeetan 18 hilabete pasatzen ditu hainbat erakundeetan zerbitzu sozialak egiten.*

**Intsumisioa:**

*Soldaduskari eta Ordezko Zerbitzu Sozialari uko egiten dio. Ez du onartzen, ez bat ez bestea, bigarrenak lehenengoa lejitimatzeko duela argudiatuz. Kontzientzia Eragozpen Legearen aurka dago, errepresibotzat hartzen bait du.*

*Soldaduskarako deia jasotzen duenean ez da joaten, baina epai militarri ez joate horren arrazoia idazki batean agertzen dio. Legez kanpo dagoenez, auzitegi militarrek epaitu beharko luke, baina eztabaidatzen ari den lege berriaren arabera, auzitegi zibilak epaituko luke.*

**Ordezko Zerbitzu Sozialari uko egiten dion intsumisioa:**

*Legez, objektore bezala onartua dago, objezio legeak ezartzen dituen baldintzak bete dituelako, baina Ordezko Zerbitzu Soziala egitera deitzen dutenean ez da joaten, aipatu zerbitzuari uko eginez. Legez kanpo, eta auzitegi militarretatik kanpo geratzen da.*

**LXLIKUN**  
**BEREZITASUNAK**

Fraiskozurl 6, Tfnoa: 76 51 62  
**BERGARA**

**K**abia

*Altzariak*

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE





**ETXE-  
-AUNDI**

**Negozio bazkariak  
Ezkontzak  
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI


**FS**   
oto sistema

**ARGAZKIAK  
ORDUBETEAN**

- Diapositiba errebelatzeak
- Karneterako argazkia momentuan
- Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

## Difuntoen egunean kanposantura joaten zara?



**Roberto Cachafeiro**  
18 urte, arotza

Normalean bai, urtean zehar ere bai batzutan. Aurten ez dakit ahal izango dudan.



**Pakita Madina**  
72 urte, etxeandrea

Bai, gizona hilda daukat eta. Urtero ez naiz joan izan baina aurten ez dut hutsik egingo.



**Esteban Fernandez**  
65 urte, jubilatua

Sekula ere ez. Eramango naute baina joan ez. Errezatzen badugu ere ez dabe entzuten...



**Miren Koro Garmendia**  
25 urte, hezitzailea

Egun horretan bakarrik joaten naiz, urtean zehar sekula ere ez.

*Nahikari*

**DANIEL LASKURAIN**

- Pintura
- Marrakia
- Grabatua

"Ez eizue sinistu bizitza urria dalako kontu hori. Trago haundika edan eizue, galtzeko orduan ez da nahikoa izango ta."

Mahasterreka 20, Tfnoa: 76 57 71


**LITXAR**

**Kruasantegia**

- Gosariak
- Askariak
- Hanburgesak / Sanwichak / Plater konbinatuak / Pizzak

Fraiskozuri enparantza 4 Tfnoa: 76 55 45 BERGARA





**Gipuzkoako  
Bertsolari  
Txapelketa**

1967.etik ez da Gipuzkoan txapelketarik egin. Orduan Txomin Garmendiak irabazi zuen txapela. Geroztik ez da besterik egin orainarte.

Aurtengo hau antolatzen ekiterakoan polemika gai bihurtu bazen ere, gauzak bere onera itzuli dira, eta abiatu ere egin da txapelketaren gurdia.

Antzuolan hasi ziren biraka bere gurpilak urriaren 25ean eta abenduaren 22an iritsiko da Donostiako Belodromora.

Haserako kanporaketak euren emaitzak ematen hasi baldin badira ere benetako saltsa finalaurdenekin batera etorriko da. Bertan, aurreko txapelketa nagusiko finalista eta erdifinalista guztiak sartuko bait dira.

Jakin dugu bestalde, goi mailan aritzen diren bertsolariak hontarako prestaketa bereziak egiten hasiak direla, beraz kalitate aldetik txapelketa nagusiko maila ziurtatu daitekela iruditzen zait.

Adituen ustez bada txapela jatzeko aukera handiak dituen bakar bat, Egaña hain zuzen ere, baina, erantzunkizunaren kargak bere papera joka dezake. Eta beste batzu ere, badira gerra emangoko diotenak: Lizaso, Eguzkitze, Sarasua, Peña, etab.

Gurdi honi jarraitu nahi dionak, badu beraz aukera hemendik gabonak arte.

**Koldo Alberdi**



**Fuerzas  
armadas  
españolas**

Bada auzi honetan bitxia den zerbait: alde batetik denok dakigu zer den soldaduzka eta ez dago esan beharrik zentzurik gabeko ikasturte horrek egiten digun mesedea eskertezina dela; bestetik ez dakigu ziur zergatik baina jende askori ez zaio oraindik buruan sartu, zenbat eta jende gehiago, zenbat eta laguntza gehiago (garbia eta zintzoa) eduki, orduan eta errezago lortuko dugula gure helburua. Beraz, eta inoren animoak astoratzeko asmorik gabe, ohar pare bat besterik ez.

Egun egoera nola dagoen ikusita, edozein gaztek soldaduzkaren aurrean bere buruari egiten dizkion galderak aldatu egin dira. Ez joatearen arrazoiak eza-gutu eta onartu egiten ditu; arazoak bestekaldean sortzen zaizkio, joatera bultzatzen duten arrazoiekin eta bi dira zabalduenak: gizartearekiko eta buruarekiko aurre pauso bat ematearena eta lanpostuarena. Lehenengoa guztiz pertsonala denez, zer esan? Bigarrena berriz kanpotik dator, txantaje garbi baten aurrean dago eta okerrena dena, askotan konpon ezina.

Arazo honetan nahikoa litzateke enpresen borondate puska bat. Mesedez utzi mamuak alde batera, bada garaia, soldaduzkak eta lanbideak ez dute zerikusirik eta. Ildo horretatik, lotsagarria da Arrasateko Kooperatiba Elkarteak eta Lankide Aurrezkiak, lizentziatu berrientzako beka batzu kaleratu eta baldintzetan soldaduzka eskatzea, horrelako gauzekin ez bait da jolasten.

**Jose Luis Lazkano**

**ERREKI**

**Erretegia**

**Berezitasunak:**

**Bixigua eta txuletak**

**Fraiskozuri Enparantza**

**Tfnoa: 76 38 51**

**HALTZARI**

**FAGOR altzarien  
banatzailea.**

**Sukalderako altzariak**

**Bolu 24 Tfnoa: 76 30 57 BERGARA**

**M.  
OSINAGA**

**Etxeko  
erreformak**

**Sukaldeko  
altzariak**

**Espalola z/g**

**Tfnoa: 76 29 85 / 76 00 57**

**TABERNA  
ZAHARRA**

**Jatetxea**

**Bazkariak  
eta  
afariak**

**Tfnoa 76 21 21  
ANGIOZAR**



## Zeuk galde



### 39. Zein hilabetetan jaiotzen da ume gehien?

Egia esanda diferentziak ez dira oso haundiak hilabeteetik hilabetera. Hala ere, estatistikek diotenez, udaberriko hilabeteetan (martxo, apiril eta maiatzean) jaiotzen da haur gehien.

1.989ko datuen arabera, maiatza izan zen Euskadiko Autonomia Elkartearen haur gehien jaio zen hilabetea (% 9,44a).

Gutxien, ostera, irail eta abuztuan (% 7,57 eta % 7,6).

### □ Esperimentu ederra!

*Amaia Labayen* eta *Mikel Laskurain* bergarrek lehen saria irabazi zuten *Tarrasako Bideo Musikalen Jaialdian Me gusta comer con musica* lanarekin. Amaiak eta Mikelek Donostiako Zinemaldian Urrezko Kontxa irabazi berri duen Juanma Bajo Ulloaren anaiaren laguntza izan zuten honakoan; *Edu Bajo Ulloa* errealizazioaz arduratu zen, eta Amaiak produkzio eta edizio lanak egin zituen, Mikelek, ohizkoa den bezala, aktore lan bikaina burutu zuelarik. Honako bideo hau lan esperimentalak genuke, pantaila hiru zatitan banatu eta zati bakoitzari Wim Mertens-en abestiaren soinu estereoaren zati bat dagokio eta (saxoa, pianoa edota bion nahasketa). Mikel hiru zati horietan agertzen da denbora guztian paper ezberdinak eginaz. Dirudienez, lehenbizi egiten den esperimentu hau ezin hobeto irten da eta Tarrasako epaimahaia ere lan horren orijinaltasuna saritu nahi izan du.



### □ Kilometroak egitera

Ostiralean *Tomas Eraso* ordiziarrek *Kilometroak* egunean zozketatutako *Clio* kotxea jaso zuen *Jose Maria Beitia* Bartzorde Iraunkorreko presidentearen eta Renault kontzesionariaren *Jose Maria Aseginolaza* arduradunaren eskutik. Tomasen lagun batek erosi zuen saritutako boletoa *Kilometroak* egunean, goizeko 9 terdiak aldera, zirkuituaren irteeran. Goizean goiz ibiltzearen abantailak... eta kilometroak egiten jarraitzeko modu erreza.



## KORTA-ZAR

### Txokolategia

**Pintxo eta ogibitartekoaren espezialitatea**

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 62



Era guztietako kristaleria: Ispiluak, bidrierak...

## UR Kristaldegia

Urteaga 8, Tfnoa: 76 54 68 BERGARA






□ **Peregrinazioa**

Bergararik berrogei bat lagun *Fatimara* autobusez joan zitzaizkigun orain aste batzu astebukaera bertan pasatzera. *Peregrinazio* honetan, otoitz egiteaz gain, turismo pixka bat egiteko aukera ere izan zuten; astebukaera zoragarria igaro eta 1917an *Fatiman* izandako *Ama Birjinaren* agerpenaren bidentetako baten anaiari *bisitatxo* bat egin nahi izan zioten argazkian agertzen diren bergararrek. *Franciscoren* anaiak pozaren pozez jaso zuen bisita eta agerpen haren kronista lanak egin zizkien bergararrei.



*Zertan dihardute ba?*

IBAN RODRIGUEZ



Bergarar gidari gazte honek, 19 urterekin, gure herriko gidarien pausuak jarraitzeko kategoria baduela demostratu zuen Montmeloko zirkuituan jokaturako Renault Iniziazio Kopan bostgarren postua lortuz.

IÑIGO IGARTUA



Aspaldi honetan Beljikan entrenatzen ibili den 23 urteko txirrindulari bergararra lan horren fruituak jasotzen hasia da, igandean ziklo-kross denboraldiko lehenbiziko karrera irabazi baitzuen Gernikan.

**BOLINTXO**

Kirola egiteko behar den guztia

Ibargaral 10,  
Tfnoa: 76 38 32

ederTU

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK  
Barrenkale 23 Tfnoa: 76 29 65 BERGARA



## Hau dok barreguria !!

Pazkuazkuak egin biha ziela ta norbaittek engaiñau zeban Pernalles ijittuan andria konfesatzera joateko.

- Zazpigarren mandamentua? -preguntau zotsan abadiak.

- Oinddio be bizi da mandamentu hori, ala?

- Ze uste ziñuan ba, hil zala, ala?

- Makiñatxo bat igurtzi hartuik izan biha dau honezkero. Hara ba, jauna, egi-egixa e-sangotsut. Oillo luma batzuk harrapau dittut.

- Askot?

- Oillo batenak.

- Luma hutsak?

- Ez jauna, luma ta guzti.

- Esaizu ba oillo bat harrapau dozula.

- Bai, bai, baiña eneban lenengo eta bigarren golpian harrapau. Golpe eta hiru ero lau luma; golpe eta beste dozenerdi; eta , zer karajo! esan neban. Golpe eta lepua bihurtu, eta



lumak kendu eta orduan azaldu zan garbi garbi oillua.

- Ba oiñ jabiai "restituziñua" egin biha dotsazu.

- "Destruziñua" ze da?

- Lapurtutakua jabiai bihurtzia.

- Oillua ala lumak?

- Oillua eta lumak!

- Jauna, ba oillua joan zan beste mundura. Lumak han dare eta oilluak die. Oillo haura zan haren jabia. Eztau laga herederorik eta...

- Eta oillua norena zan?

- Eztakit pa, jauna.

- Emoixozu orduan pobreren bati haren baliua.

- Bai jauna. Nere gizona baiño pobriagorik eztago eta...

J. M. Elexpuru

## Antzinako kontuak

### Bergarako ehungintza

Bergarak 1.918. urtean instalakuntza industrial garrantzitsuak zituena, beraietatik ehungintza zen nagusi.

Espainiak gerlan parte hartu ez zuenez, 1.914tik 1.918ra asko aurreratu zen arlo honetan.

Ofizioa ondo ezagutzen zuen jendeak, industria berriak eraiki zituena, bazkide kapitalistekin.


San Antonio kotoi landare lantegia, izan zan Bergaran lehenengo jarri zen oihal lantegia Martina Maiz eta Julian Blancoren inizatibaz, 1.845. urtean.

*Sobrinos de Hilario Mugerza.*

Lantegi hau Mahasterreka kalearen bukaerara aurkitzen zen, eta Eginio Mallea palazioari lotua zegoen.

*Movilla Fernández y Compañía.*

Gregorio Fernández Ozaetako auzoan insta-



latu zen, bere lehen tintategiarekin. Hau 1.888. urtean gertatu zen. Gutxi iraun zuen leku honetan.

*Pedro Lasagabaster.*

Eskoriatzatik etorria, Bergarara heldu zen 1.890. urte inguruan heldu zen, eta Zurradero aldeko orube batean instalatu zen Zurraderokoaren aldean.

Honek garabide garrantzitsu bat hartu zuen, katoizko arropa lantegi batera.

Arkakuso  
aldizkaritik

**OILAGORRA**  
**Taberna**

Barrenkale 21, BERGARA

**Zubiberrri**

*Sagardotegia*

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton Tfnoa: 76 41 06

I  
Z  
O  
Z  
K  
I  
A  
K



I  
Z  
O  
Z  
K  
I  
A  
K

Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22



ILEAPAINDEGI MISTOA  
ESTILISTA.

Artekale 29, Behea  
Tfnoa: 76 29 70  
BERGARA.



# Amaia Aranzabal: "Pena bat izan da"

**F**rustraturik gailurra lortu ez delako?

Pena handiarekin bai, frustraturik ez. Gaizki ibili edo gaisotzen bazara beharbada bai..., baina ez dugu inolako problema-rik izan eta ahalegin guztiak egin ditugu gailurrera heltzeko. Azkenean ezinezkoa izan da. Gertatzen da espedizioa amaitu eta hasten zarela bueltak ematen egindako guztiari, izandako arazo-iei eta pena asko ematen dizu geneukan helburua ez lortzea.

*Zein izan da beraz gailurra ez lortzearen arrazoa?*

Haizea, eguraldia esango nuke. Sekulako aldaketak izan ziren egun gutxitan eta ezinezkoa zen ibiltzea. Laugarren kanpamenduan utzitako materiale guztia ezin izan genuen jaso haizea-gatik, ezinezkoa izan zitzaigun haize harekin gora jotzea.

*Benantxio eta Iosuren saiakeran ere arazoak izan ziren...*

Hegotontorrera heldu zirenean Iosuk 3 ordurako oxijenoa eta Benantxiok ordu baterako ere ez zuela ohartu ziren, eta gainera oxijenoak ihes egingen zion Benantxiari. Oraindik 3 orduko lana



falta zitzaien eta Iosu igotzeko moduan baze- goen ere, jeisteko oxijeno gabe geratzen ziren; honek suposatzen du nahitanahiez vivaca egin beharko zutela eta hori asko arriskatzea da; bizirik irtenda ere posibilitate askorekin hanketan edo eskutan konjelazioekin amaitzeko. Momentu tensoa izan zen hura, tontorra oso gertu baitzuten, 100 bat metrora.

*Nola erabaki zenuten nortzuk izango ziren saiakera egingo zutenak?*

Han oso garbi ikusten da, gure artean ez zegoen zalantzarik. Bat osasunez gaizki dagoelako, beste batek animo aldetik flojo samar dabilela... selezioa han egiten da. Pro-

batzeko penarekin geratu naiz, baina ez nuen igotzeko ziurtasunik eta gutxiago jendea nola jeisten zen ikustean.

*Itzultzeko asmorik?*

Burutik pasatzen zai- zu, baina diru asko da eta ez da batere erreza dirua lortzea, permisoak ere gero eta garestiagoak direlako. Problema dirua da, gogoa ez da falta. Orain 8000 inguruko mendiak eskuratzeko posibilitate gehiago ikusten ditut, Everesta oso retu handia litzateke oraindik eta oxijenoaren tresneri guztiarekin kontatu behar duzu gainera, oso inkomodoa da. Baina gogoa eta proiektuak ez dira faltako, ziur egon.

## Ezin

Ezin izan dute ez Azpeitia Everest 91ko espediziokideek bere helburua lortu. Urtebeteko lana ezin izan dute nahi izandako emaitzarekin burutu. Gogorra izan behar du, dudarik ez, gailurra bistan izan eta atzera bueltatu behar izateak. Baina Iosu Bereziartuak esan zigun bezala, "erabaki horretan ez dago failatzerik, ez dago tartean geldit-zerik. Borroka handia dago zure barruan eta hor mendizale batek zenbateraino arriskatu nahi duen sartzen da jokoan."

Gurasoek ere gaizki pasa dituzte egun hauek, batez ere irrati konexioa galdu zenean. Orain, alaba handik bueltan izateak ematen duen lasaitasunarekin, pena bat izan dela aitortzen dute, "lortuko zutela-koan geunden eta. Fuerte zeuden eta eguraldiak ez die gailurra lortzeko bide bape erreztu."

Mendia den bezala onartu beharra dago. Hurrengo batean Amaia eta bere lagunek mendia eta haizea beren alde izango dituztela espero izan beharko da. Animo!

# INFERNUKUA TABERNA

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49

## GABILONDO - ARREGI

Harategia - Urdaitegia

Kale-Barren 14 Tfnoa: 76 62 90  
ANTZUOLA





*Barrenkaleko futbol taldea. 1.935*

**D**on Juan Gabilondo, Tiburtzio Gabilondo enpresariaren anaia, zegoen 1.935. urtean San Pedron maisu. Bera zen Luistarren arduraduna eta katekesian zebiltzan haurren artean futbolzaletasuna pizten gogor saiatu zen.

Bergarako toki desberdinetako umez antolatutako 5-6 ekipok, jardun zuten Seminarioko patioan jokatzen zen txapelketa batetan. Barrenkale, Altos Hornos, Artekale, Mizpildi, etab. etako futbol-taldeak ziren. Zoritarrez, ez zuten luzaro iraun, berehala gerra heldu bait zen.

Erretratuan agertzen direnak, ezkerretik eskumara:


**Zutik:** Jose Mari Gallastegi, Uriarte, Jesus Unamuno, Pablo Zabaljauregi, Migel Ojanguren, Luis Agirre, Jose Mari Aranes eta Uriarte.

**Makurtuta:** Jose Joaquin Aranes, Jesus Ibañez eta Tomas Lasa.

*Estepan Plazaola.  
Argazkia: Andoni Ugalde.*

*Tximak*  
*Ileapaindegia*

Fraiskozuri 3, Tfnoa: 76 56 69



**GAZTELV S. A.**  
**Burdindegia**

Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA





## ETXEBIZITZA

- Pisia salgai Koldo Elizalde 20an. Deitu gaueko 8etatik aurre-ra764252.
- Pisia salgai Koldo Eleizalden. Tfnoa: 7658-23.
- Pisu txiki edo buhardilla bat hartuko nuke alokagailuan. 763270.
- Pisia salgai; garaje eta guzti. Tfnoa:763911.
- Baserri bat hartuko genuke alokairuan. Tfnoa: 763431.
- Pisu edo buhardilla hartuko genuke alokairuan. 764735.
- Pisia salgai: bi gela saloia, sukaldea bainua , buhardilla eta berogailu zentrala. Tfnoa: 76 49 71.

## LANA

- Langile bat behar da. Tfnoa: lan orduetan 76-1593
- Latinezko irakasle bat behar dut. Deitu: 76-6327, gaueko 10etatik 11-etara.
- Arratsaldez lana egingo nuke etxeko lanak egiten edo umeak zaintzen. Deitu: 765482.
- Produzio saileko ingeniero-tekniko batek lan egingo luke. Tfnoa: 761913.
- Mutil batek furgoneta batekin errekauek egiten lan egingo luke. Deitu: 742063.

## SALDU-EROSI

- Yamaha 250 SR oso egoera onean salgai. Deitu: 862071era.
- Amstrad ordenadorea salgai, kolorezko monitorea, 3 pulgadako disketera, 30 joku eta oso merke. Tfnoa: 7625 12.
- Karrerako bizikleta bat mendiko bizikleta batengatik trukatu nuke. Deitu: 763269.
- Siberian-husky's arrazako txakurkumeak salgai. Deitu: 761479.
- 3 pertsonentzako iglu kanping-denda berria salgai. Deitu: 763495.
- Karabana berri-berria salgai 5 pertso-nentza-ko abanzeeta guzti. Deitu: 761388.

• Logela bat eta altzariak salgai oso merke. Deitu: 761929

• Skate-ko patinete berri-berria salgai. Tabla Hard-Times, ejeak Gold-Wine eta erruberak Mini-Rat. Deitu: 762682.

• Erabilitako altzariak erosiko nituzke (mahai-ek, aulkiak, armairuak, etab). Deitu: 768157, gauez.

## Hildakoak

*Jose Martin Perurena Deskarga*  
62 urte, urriak 27an  
*Pilar Arozena Ojanguren*  
78 urte, urriak 28an

## Jaiotakoak

*María Cruz Larrañaga*  
urriak 25ean  
*Ion Prieto Garcia*  
urriak 28an

## AUTOPULLMANS ARABA Autobusak

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

**ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70**


## TABERNA



Irala 3, Tfnoa: 76 20 50 BERGARA



**EUSKARAZ NOIZ,  
ZAHARTZAROAN?**



**EUSKARA, GAZTEENA**

**BERGARAKO UDALA  
EUSKARA ZERBITZUA**